Ordiziako Udala

2020IOSB0001

Ordizian, **2020ko otsailaren 6an** UDALBATZARRAK ohiko OSOKO BILKURA egin du udaletxe honetako bilkura aretoan. Hona hemen bertaratuak:

En Ordizia siendo el día **6 de febrero de 2020** se reúne en el Salón de Sesiones de esta Casa Consistorial el AYUNTAMIENTO PLENO EN Sesión ordinaria con la asistencia de las siguientes personas:

**LEHENDAKARIA:**

Adur Ezenarro Agirre jn.

**BERTAN DAUDEN ZINEGOTZIAK:**

| | |
|---|---|
| Maitane Alvarez Garciandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jon Ander Caballero Zubelzu | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Ainhoa Jimenez Goñi | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jesus M.Lariz Orbezabal | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Itsaso Muñoz Rodriguez | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Lander Mujika Onandia | EUSKAL HERRIA BILDU (EH BILDU) |
| Jose Miguel Santamaría Ezeiza | EAJ-PNV |
| Arantxa Arocena Gomez | EAJ-PNV |
| Joseba Aranburu Ganzarain | EAJ-PNV |
| Xabier Crespo Ibarrolaburu | EAJ-PNV |
| Arantxa Fernandez Alvaredo | EAJ-PNV |
| Bittor Bolinaga Alzelai | EAJ-PNV |
| Miren Alazne Sukia Galparsoro | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Juan Ignacio Alonso Arratibel | ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) |
| Iñaki Dubreuil Churruca jauna | (PSOE) PSE-EE (PSOE) |

**IZAN EZ DIREN ZINEGOTZIAK:**

Eritz Perlines Torres (EAJ-PNV)

**IDAZKARIA:**

Ana Urkizu Kerejeta andrea

**KONTUHARTZAILEA:**

**AZTERTUTAKO GAIAK:**

**EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK**

1. 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkurak egindako batzarraren zirriborroa onartzea.
2. 2019ko abenduko Alkatetzako dekretuen berri ematea.
3. Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa, elikagaiak xahutzearen aurkakoa.
4. 2020 aurrekontu luzatuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kreditu aldaketa egitea atletismo pista berritzeko.
5. Udal harrera etxebizitzen araudia aldatzeko proposamena.
6. Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko oinarrien aldaketa.

1.- Aprobación del acta del Pleno ordinario celebrado el 19 de diciembre de 2019.
2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía correspondientes al mes de diciembre.
3.- Moción presentada por el Grupo Socialista contra el despilfarro alimentario.
4.- Modificación de los presupuestos prorrogados de 2020, mediante modalidad de crédito adicional, para financiar la sustitución de la pista de atletismo de Altamira.
5.- Propuesta de modificación de la normativa reguladora de las viviendas de acogida municipales.
6.- Modificación de las bases para la concesión de ayudas municipales para la garantía de ingresos y la inclusión social.
7.- Ruegos y preguntas.

7.- Galde-erreguak

**PRESAZKO IZAERAZ SARTUTAKO GAIAK:**

**GALDE-ERREGUETAN AZTERTUTAKO GAIAK:**

| | |
|---|---|
| - Santamaría jaunak Majori kiroldegia SM enpresaren kontratuei buruzko informazioa eskatu du. | - Solicitud de información sobre contratos de Majori kiroldegia, S.L. por parte del Sr. Santamaría. |

**GORABEHERAK:**

**ORDUTEGIA:**

**HASIERA: 19:00etan.** **AMAIERA: 19,30ean.**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Bilkura hasi ondoren, eta gai-zerrendako lehen puntuari heldu aurretik, alkateak osoko bilkurako kideei jakinarazi die bilkura hau ohiko bilkuretarako ezarritako egunetik kanpo egin arren (urtarrilaren 30ean egin behar zen), ohikoa dela. Astebete atzeratu dute, joan den ostegunean greba eguna izan zelako.

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren lehenengo puntuaren berri eman du:

**1.- 2019ko abenduaren 19ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea.**

Proposamena

**2019ko abenduaren 19ko ohiko osoko bilkurako akta onartzea**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte: ez da izan.

Iniciada la sesión, antes de pasar al primer punto del orden del día, el Sr. Alcalde da cuenta a los miembros del pleno que aunque la presente sesión se celebra fuera del día establecido para las sesiones ordinarias (debería haberse celebrado el día 30 de enero), tiene carácter ordinario. Se ha retrasado una semana porque el jueves pasado fue día de huelga.

Seguidamente, por parte del Presidente, se da lectura al primer punto del orden del día.

**1.- Aprobación del acta de la sesión ordinaria de fecha 19 de diciembre de 2019**

Propuesta

**Aprobar el borrador del acta de la sesión ordinaria celebrada el día 19 de diciembre de 2019**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen: ninguna.

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, (PSOE) PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**2.- 2019ko abenduko Alkatetzako dekretuen berri ematea**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Santamaria jaunak 19/1176 dekretuari buruzko informazioa eskatu du, kontratu txikiei buruzkoa (Oiangu).

Alkate jaunak erantzun dio esanez taberna ustiatzeko jarritako fidantza itzuli behar dela.

**2.- Dación de cuenta de los decretos de alcaldía del mes de diciembre de 2019**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. .Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Santamaría solicita información sobre el decreto 19/1176 sobre contratos menores (Oiangu).

El Sr. Alcalde le responde que se trata de la devolución de la fianza depositada para la explotación del Bar.

Sukia andreak mailegua eskatzeko B19/2016 dekretuari buruz galdetu du.

Alkate jaunak erantzun dio.

**Udaleko Osoko Bilkura jakinaren gainean dago.**

Sra. Sukia pregunta sobre el decreto B19/2016 de solicitud de prestamo.

Sr. Alcalde le responde.

**El Ayuntamiento pleno queda enterado.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**3.- Talde Sozialistak aurkeztutako mozioa elikagaien xahutzearen aurkakoa.**

Proposamena

**MOZIOA, ORDIZIAKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK AURKEZTUA, ORDIZIAKO UDALAK ELIKAGAIEN XAHUTZEAREN AURKAKO EUSKADIKO PLATAFORMAREKIN BAT EGITEARI BURUZKOA**

Elikagaien xahuketa edo galera da nazioarteko erakundeen (FAO, NBE, OME…) eta Europako gobernuen agendan sartzen diren erronka nagusietako bat, mundu osoan gizartean, ingurumenean eta ekonomian duen eragina dela eta.

FAOren arabera, urtero 1.300 milioi tona elikagai baino gehiago botatzen dira zaborretara; hau da, munduan ekoizten diren elikagaien herenak.

Euskadin 350.000 tona elikagai inguru xahutzen dira. 160 kg/persona/urteko, gutxi gorabehera.

Hondakinak guztira Euskadin 350.000 tona elikagai inguru xahutzen dira. 160 kg/persona/urteko, gutxi gorabehera.

Gipuzkoan, Impact Hub Donostiak Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Sailarentzat 2017an egindako diagnostikoa kontuan hartuta (elikagai-xahutzeari eta Gipuzkoako kolektibo behartsuenen beharrei buruzkoa), urtean 123.663 tona elikagai xahutzen dira probintzian.

2015ean, NBEk Garapen Iraunkorrerako Helburuak kaleratu zituen. Hain zuzen ere, 12.3 Helburuaren asmoa da 2030. *urterako "erdira murriztea txikizkako salmentan eta kontsumitzaileen artean biztanle bakoitzeko xahutzen diren elikagaiak, eta elikagai gutxiago galtzea ekoizpen- eta hornidura-kateetan."*

Eusko Jaurlaritzak, Elika Fundazioaren bitartez, Euskadiko elikagaien xahutzearen aurkako

**3.- Moción presentada por el grupo Socialista contra el despilfarro alimentario.**

Propuesta

**Moción que presenta el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de Ordizia relativa a la adhesión del ayuntamiento de Ordizia a la plataforma de Euskadi contra el despilfarro alimentario.**

El despilfarro, derroche o desperdicio de los alimentos es uno de los principales retos incluidos en la agenda de las organizaciones internacionales (FAO, ONU, OMS…) y de los gobiernos europeos debido a su impacto social, medioambiental y económico en el ámbito mundial.

Según la FAO, más de 1.300millones de toneladas de alimentos acaban en la basura cada año; es decir, un tercio de los alimentos producidos en el mundo.

En Euskadi, se estima que supera las 350.000 toneladas, 160 kg/persona/año, aproximadamente.

En Gipuzkoa, atendiendo al Diagnóstico elaborado por Impact Hub Donostia para el departamento de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa sobre despilfarro alimentario y necesidades de los colectivos desfavorecidos de Gipuzkoa realizado en 2017, nos encontraríamos con 123.663.T. anuales de despilfarro alimentario en la provincia.

En el año 2015, la ONU publicó sus Objetivos de Desarrollo Sostenible. El Objetivo 12.3 pretende, para el año 2030, "reducir a la mitad el desperdicio de alimentos por habitante correspondiente a los niveles de la venta al por menos y el consumidor y reducir la pérdida de alimentos a lo largo de las cadenas de producción y suministro".

El Gobierno Vasco a través de Elika Fundazioa ha elaborado un Plan de Actuaciones frente al Despilfarro

Jarduketa Plana egin du.

Jarduketa Planaren esparruan, mozio honekin batera doan Manifestua bultzatu da, eta Elikagaien xahutzearen aurkako Euskadiko Plataforma ere sortu da.

Azaldutakoaren arabera, Ordiziako Udaleko udal Talde Sozialistak beharrezkotzat jotzen du Udalbatzak honakoa azter dezan, ondorengo erabakia har dezan

AKORDIOA

1.- ORDIZIAKO Udala Euskadiko Elikagaien Xahutzearen aurkako Plataformarekin bat egitea eta EUSKADIN ELIKAGAI XAHUKETARI EZ Manifestuan ezarritako konpromisoekin bat egitea.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Dubreuil jaunak mozioaren xedea azaldu du, alegia, elikagaien xahutzearen aurkako plataformarekin bat egitea. Alferrik galtzen dira 123.000 tona baino gehiago.

Udalak xahutze horren aurkako ekintzak egin behar dituela uste du.

Plataformaren manifestuarekin bat egitea eskatzen du, eta horrekin batera lan-mahai bat eratzea ere eskatzen du, ekintza horiek adostu eta sustatzeko.

Alonso jaunaren ustez, gai honetan, baita jasangarritasunaren eta klima-aldaketaren gaian ere, oro har, teoriatik praktikara pasatu behar da, eta lan-batzorde bat eratu behar da, baina ekintza zehatzak zehaztuko dituena.

Puntua mahai gainean uztea proposatu du.

Alkate jaunak esan du oso zaila dela horrelako adierazpenekiko atxikimendurik ez onartzea, baina Alonso jaunak bezala, ekintzara pasatu behar dela uste du. Manifestuak ondo daude, baina ez dira nahikoak.

Halaber, beharrezkotzat jotzen du gai horretarako lan-mahai edo -batzorde bat eratzea.

Dubreuil jaunak esan du badirela gure inguruan, eskualdean, horren inguruko esperientziak.

de alimentos en Euskadi.

En el marco del Plan de actuaciones, se impulsa el Manifiesto que se adjunta a esta moción y la creación de la Plataforma de Euskadi contra el Despilfarro Alimentario.

De acuerdo con lo expuesto, el Grupo Municipal Socialista del Ayuntamiento de ORDIZIA, considera necesario someter a la consideración del Pleno la adopción del siguiente,

ACUERDO

Adhesión del Ayuntamiento de ORDIZIA a la Plataforma contra el Despilfarro de Alimentos de Euskadi y a los compromisos establecidos en el Manifiesto NO AL DESPILFARRO ALIMENTARIO EN EUSKADI.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Dubreuil explica el objeto de la moción, que no es otra que la adhesión a la plataforma contra el despilfarro alimentario. Más de 123.000 toneladas que se desperdician.

Considera que el ayuntamiento debe de promover acciones en contra de este despilfarro.

Solicita la adhesión al manifiesto de la plataforma y también la constitución de una mea de trabajo para acordar y promover dichas acciones.

Sr. Alonso considera que en este tema así como en el tema de sostenibilidad y del cambio climático en general hay que pasar de la teoría a la práctica y constituir una comisión de trabajo pero que determine acciones concretas.

Propone dejar el punto sobre la mesa.

Sr. Alcalde dice que es muy dificil no aprobar una adhesión a este tipo de manifiestos pero al igual que el Sr. Alonso considera que hay que pasar a la acción. Los manifiestos están bien pero no son suficientes.

Tambien considera necesaria la constitución de una mesa o comisión de trabajo para el tema.

Sr. Dubreuil dice que hay en nuestro entorno, en la comarca, experiencias al respecto.



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

Ez luke inolako eragozpenik izango aurkeztutako mozioari bigarren puntu bat eransteko, honela idatzita geratuko litzakeena:

"Era berean, ahalik eta eperik laburrenean lan-talde bat sortzeko konpromisoa hartzen du Udalak, elikagaien xahutzearen esparruan adosten diren proiektu eta ekintza guztiak aztertu eta proposatzeko".

Osoko bilkurako kideak proposamena bozkatzearen alde daude, bigarren puntua sartuta.

Proposamena

**1.- ORDIZIAKO Udala Euskadiko Elikagaien Xahutzearen aurkako Plataformarekin bat egitea eta EUSKADIN ELIKAGAI XAHUKETARI EZ Manifestuan ezarritako konpromisoekin bat egitea**

**2.- Era berean, ahalik eta eperik laburrenean lan-talde bat sortzeko konpromisoa hartzen du Udalak, elikagaien xahutzearen esparruan adosten diren proiektu eta ekintza guztiak aztertu eta proposatzeko.**

No tendría inconveniente alguno en añadir un segundo punto a la moción presentada con la siguiente redacción:

“Así mismo, el Ayuntamiento se compromete a crear en el más breve plazo de tiempo posible, un grupo de trabajo para analizar y proponer cuantos proyectos y acciones se acuerden en el ambito del despilfarro alimentario”.

Los miembros del pleno muestran su conformidad a votar la propuesta con la inclusión del punto segundo.

**Propuesta**

1. **Adhesión del Ayuntamiento de ORDIZIA a la Plataforma contra el Despilfarro de Alimentos de Euskadi y a los compromisos establecidos en el Manifiesto NO AL DESPILFARRO ALIMENTARIO EN EUSKADI.**

2. **Así mismo, el Ayuntamiento se compromete a crear en el más breve plazo de tiempo posible, un grupo de trabajo para analizar y proponer cuantos proyectos y acciones se acuerden en el ambito del despilfarro alimentario.”**

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (EH Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, (PSOE) PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**4. 2020 aurrekontu luzatuaren barnean kreditu gehigarrien bidez kreditu aldaketa egitea atletismo pista berritzeko.**

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak azaldu duenez, iaz kreditu aldaketaren figura berarekin errugbi zelaia ordezkatzea onartu bazen ere, kontu-hartzaile

**4.- Modificación del presupuesto prorrogado de 2020 mediante modalidad de crédito adicional para financiar la sustitución de la pista de atletismo de Altamira.**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr.Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Alcalde explica que aunque el año pasado con la misma figura de modificación de crédito se aprobó la sustitución del campo de rugby, consultada la propuesta



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

berriarekin proposamena kontsultatuta, teknikoki ez da posible.

Adierazi du, dirudiela, finantzaketa horretarako beste aukera bat dagoela. Eta horregatik proposatu du gai-zerrendatik puntua kentzea.

Idazkari andrea

Osoko bilkuraren deialdiko gai-zerrendan puntua agertzen den arren, osoko bilkurak aztertu eta onartu behar zuen erabaki-proposamena ez zela bidali adierazi du, udal kontu-hartzaile berriarekin aztertzen ari zelako. Osoko bilkuraren deialdian eta hura egitean, onartu nahi zen proposamena teknikoki bideragarria ez zela ondorioztatu zuen hark.

Horregatik ez da akordio-proposamenik egin, Alkateak puntua gai-zerrendatik kentzea proposatu du.

Idazkari andreak jakinarazi du ez dela bozkatu behar puntua gai-zerrrendatik kentzea.

**Alkateak gai-zerrendatik puntua atera du.**

con el nuevo interventor, no es técnicamente posible.

Señala que al parecer hay otra posibilidad diferente para dicha financiación. Y por ello propone la retirada del punto del orden del día.

Sra. Secretaria

Señala que aunque en el orden del día de la convocatoria de pleno figura el punto, no se remitió la propuesta de acuerdo que se sometía a la consideración y aprobación por el pleno porque se estaba analizando la misma con el nuevo Interventor municipal. En el transcurso de la convocatoria del pleno y la celebración del mismo, se concluyó por éste que la propuesta que se pretendía aprobar no era técnicamente viable.

Es por ello que no se ha elaborado propuesta de acuerdo ninguna, porque el Sr.Alcalde propone retirar el punto del orden del día.

La Sra. Secretaria informa de que no hay que votar la retirada del punto.

**Declara el Sr. Alcalde retirado el punto del orden del día.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**5.- Udal harrera etxebizitzen araudia aldatzeko proposamena**

Proposamena

GIZARTE LARRIALDI EGOERAK ETA ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ARTATZEKO UDALAREN HARRERA-ETXEBIZITZAK ARAUTZEN DITUEN ARAUDIA ALDATZEA.

Gizarte Ongizateko Ordezkaritzaren 2020ko urtarrilaren 22ko proposamenaren berri eman da. Proposamen horren bidez, gizarte-larrialdiko egoerei eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeei arreta emateko udal-harrerako etxebizitzak arautzen dituen erregelamendua aldatu zen, eta egungo tituloa, zerbitzu-mota berri bat sartzea zioen azalpena eta 1. eta 2. artikuluak aldatzea proposatu zen,

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluak zehazten duenaren arabera, Udalari dagokio Ordenantzak

**5.- Modificación de la normativa reguladora de las viviendas de acogida municipales.**

Propuesta

MODIFICACION DEL REGLAMENTO REGULADOR DE LOS PISOS DE ACOGIDA MUNICIPAL PARA LA ATENCION DE SITUACIONES DE URGENCIA SOCIAL PARA MUJERES VICTIMAS DE VIOLENCIA DOMESTICA.

Se da cuenta de la propuesta de la Delegación de Bienestar Social de fecha 22 de enero de 2020 relativa a la modificación del reglamento regulador de los pisos de acogida municipal para la atención de situaciones de urgencia social y para mujeres víctimas de violencia doméstica, proponiéndose la modificación del título de la misma, la inclusión de un nuevo tipo de servicio en la exposición de motivos y la modificación de sus artículos 1 y 2.

De conformidad con el artículo 22.2.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, corresponde al Ayuntamiento Pleno la aprobación

eta Araudiak onartzea.

Legearen 49 artikuluak ezarritakoari jarraituz, tokiko ordenantzak onartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaldu eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Aurkeztu daitezkeen erreklamazioak eta iradokizunak ebaztea.
- Osoko bilkuren behin betiko onarpena.

Horiek ikusita eta 2020ko urtarrilaren 28ko Ongizate eta Osasunaen Batzorde Informatiboaren aldeko irizpenarekin honako hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**Gizarte Larrialdi egoerak eta etxeko indarkeriaren biktima diren emakumeak artatzeko udalaren harrera-etxebizitzak arautzen dituen indarreko araudiaren aldaketa hasierako izaeraz onartzea, honakoaren arabera:**

Izenburua: araudiak izenburu hau izango du:

GIZARTE LARRIALDI EGOERAK, ETXEKO INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEAK ETA OHIKO ETXEBIZITZAN IRISGARRITASUN ARAZOAK DITUZTENAK ARTATZEKO UDALAREN HARRERA-ETXEBIZITZA ARAUTZEN DUN ARAUDIA

Zioen Azalpena: Amaieran alojamentu-mota berri bat gehitu da honela idatzita geratzendena:.

“3.- Etxeko irisgarritasun beharrei erantzuteko harrera pisua. Etxebizitza horietan alojamentua eskaintzen zaie iraupen laburreko egonaldia behar duten pertsonei eta bizikidetza unitateei, beraien ohiko etxebizitzako irisgarritasun gabeziei erantzuteko.”

1 . artikulua.

Era honetan aldatzen da:

de las Ordenanzas y Reglamentos.

Atendiendo a lo que dispone su artículo 49, la aprobación de las ordenanzas locales, así como sus modificaciones, se ajustará al siguiente procedimiento:

- Aprobación inicial de la modificación por el pleno.
- Información pública y audiencia a los interesados por plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones, alegaciones y sugerencias a la modificación aprobada.
- Resolución de las reclamaciones y sugerencias que en su caso se presentaren.
- Aprobación definitiva por el Pleno.

A la vista de ello y con el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Salud de fecha 28 de enero de 2020, se propone la adopción del siguiente

PROYECTO DE ACUERDO:

**Aprobar inicialmente la modificación del Reglamento regulador del Piso/s de acogida municipal para la atención de situaciones de urgencia social y para mujeres víctimas de violencia doméstica en los siguientes términos:**

Título: la ordenanza se denominará:

REGLAMENTO REGULADOR DEL PISO DE ACOGIDA MUNICIPAL PARA LA ATENCION DE SITUACIONES DE URGENCIA SOCIAL, PARA MUJERES VICTIMAS DE VIOLENCIA DOMESTSICA Y PROBLEMAS DE ACCESIBILIDAD EN LA VIVIENDA HABITUAL.

Exposición de Motivos: Se añade al de la exposición de motivos un nuevo párrafo con la siguiente redacción:

“3.- Piso de acogida para responder a necesidades de accesibilidad de la vivienda, en los que se ofrece alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieran una estancia de corta duración para responder a las deficiencias de accesibilidad de su vivienda habitual.”

Artículo 1.

Se modifica de la siguiente forma:

Honela dio:

“Gizarte larrialdietarako etxebizitzen xedea izango da aldi beterako premiazko harrera egitea. Hortaz, lojamendurik ez izatearen edota bizikidetza arazo larrien ondorioz sortzen diren egoera kritikoak artatzeko erabiliko da“

Hau esan beharko du:

“Gizarte larrialdietarako etxebizitzen xedea izango da aldi beterako premiazko harrera egitea. Hortaz, lojamendurik ez izatearen, bizikidetza arazo larrien ondorioz sortzen diren egoera kritikoak artatzeko edo ohiko etxebizitzako irisgarritasun gabeziei erantzuteko erabiliko da “

2. artikulua.- Amaieran lerrokada hau gehitzen da:

“Irisgarritasun modalitatean, ondorengo egoerak kontsideratuko dira:

Istripu, gaixotasun eta/edo hebakuntza baten ondorioz, pertsonaren arreta eta garapenerako, irisgarritasun baldintza egokiak betetzen dituen alojamentu beharrean daudenean eta beraien ohiko etxebizitak hauek bermatzen ez dituenean.

2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Udalbatzak ebatziko dituelarik.

3.-Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk egiteko beharrik gabe.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak azaldu du, udal-etxebizitza horien erabilera arautzen duen ordenantzak, indarrean dagoenak, ez dituela baldintza batzuk betetzen, besteak beste, irisgarritasun baldintzak betetzen dituzten etxebizitzak behar dituzten pertsonak hartzeko aukerarik ez du ematen.

Donde dice:

Las viviendas de emergencia social están destinada al acogimiento temporal de urgencia y sirve para atender situaciones críticas determinadas por la carencia de alojamiento y/o graves conflictos convivenciales.

Deberá decir:

“Las viviendas de emergencia social está destinada al acogimiento temporal de urgencia y sirve para atender situaciones críticas determinadas por la carencia de alojamiento y/o graves conflictos convivenciales o de deficiencias de accesibilidad de su vivienda habitual”

Artículo 2.- Se añade un último párrafo con la siguiente redacción:

“En la modalidad de deficiencias de accesibilidad, se incluirán la personas que como consecuencia de un accidente, enfermedad y/o intervención quirúrgica, requieran ser atendidas en un alojamiento que reúna condiciones de accesibilidad para garantizar su atención y desenvolvimiento y cuando dichas condiciones no se den en su vivienda habitual.“

2.- Someter dicha modificación a exposición pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y Boletín Oficial de Gipuzkoa por plazo de 30 días, dando audiencia a los interesados para la presentación de reclamaciones, alegaciones y sugerencias que serán resueltas por la Corporación.

3.-En el supuesto de que no se presentaren reclamaciones, alegaciones o sugerencias se entenderá la ordenanza definitivamente aprobada sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Alcalde explica que la ordenanza en vigor que regula el uso de dichas viviendas municipales, no contempla la posibilidad de acceder a aquellas personas que coyunturalmente se encuentran en una situación en la que necesitan viviendas con accesibilidad y la suya no reúne dichos requisitos.

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, (PSOE) PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**6.- Diru-sarrerak bermatzeko eta Gizarte inklusiorako udal laguntzak emateko oinarrien aldaketa.**

Proposamena

**DIRU-SARRERAK BERMATZEKO ETA GIZARTE INKLUSIORAKO UDAL LAGUNTZAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRIAK ALDATZEA.**

Gizarte Ongizateko Ordezkaritzak 2020ko urtarrilaren 22an egindako proposamenaren berri eman da. Proposamen horren bidez, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal-laguntzak arautzen dituzten oinarriak aldatu ziren, eta egungo I. eranskina (emakida-irizpideak, 2d, 2e eta 2 f atalak) aldatzea proposatu zen.

Toki Entitateen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2 d) artikuluak zehazten duenaren arabera, Udalari dagokio Ordenantzak eta Araudiak onartzea.

Legearen 49 artikuluak ezarritakoari jarraituz, tokiko ordenantzak onartzeko ondorengo prozedura jarraituko da:

- Osoko Bilkurak hasieran aldaketa onartu.
- Jendaurrera zabaldu eta interesatuentzako entzunaldia hogeita hamar eguneko gutxieneko epean, erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko onartutako aldaketari.
- Aurkeztu daitezkeen erreklamazioak eta iradokizunak ebaztea.
- Osoko bilkuren behin betiko onarpena.

Horiek ikusita eta 2020ko urtarrilaren 28ko Ongizate eta Osasunaen Batzorde Informatiboaren aldeko irizpenarekin honako hau onartzea proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

**6.- Modificación de las bases para la concesión de ayudas municipales para la garantía de ingresos y la inclusión social.**

Propuesta

**MODIFICACION DE LAS BASES REGULADORAS DE LAS AYUDAS MUNICIPALES DE GARANTIA DE INGRESOS Y PARA LA INCLUSION SOCIAL.**

Se da cuenta de la propuesta de la Delegación de Bienestar Social de fecha 22 de enero de 2020 relativa a la modificación de las Bases reguladoras de las ayudas municipals de garantía de ingresos y para la incluisón social, proponiendo la modificación del actual Anexo I "Criterios de Concesión", apartados 2d, 2e y 2 f.

De conformidad con el artículo 22.2.d) de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, corresponde al Ayuntamiento Pleno la aprobación de las Ordenanzas y Reglamentos.

Atendiendo a lo que dispone su artículo 49, la aprobación de las ordenanzas locales, así como sus modificaciones, se ajustará al siguiente procedimiento:

- Aprobación inicial de la modificación por el pleno.
- Información pública y audiencia a los interesados por plazo mínimo de treinta días para la presentación de reclamaciones, alegaciones y sugerencias a la modificación aprobada.
- Resolución de las reclamaciones y sugerencias que en su caso se presentaren.
- Aprobación definitiva por el Pleno.

A la vista de ello y con el dictamen favorable de la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Salud de fecha 28 de enero de 2020, se propone la adopción del siguiente

PROYECTO DE ACUERDO:



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus

**1.- Hasieran onartzea diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko udal-laguntzak arautzen dituzten oinarrien I. eranskinaren aldaketa, baldintza hauetan:**

**I. eranskina:** 2.d, 2.e eta 2.f ataletako emate-irizpideetan honako irizpide hau gehitzea:

“- Etxebizitzako gastuetarako prestazio osagarriko (EPO) onuradun ez izatea, gizarte langileak salbuetsitako kasuetan ezik”.

**2.- Arautegi hori jendaurrean jartzea 30 egunez, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-taulan, eta interesdunek aurkeztutako erreklamazioei eta iradokizunei tartea ematea, horiek guztiak Udalbatzak ebatziko dituelarik.**

**3.-Erreklamaziorik edo iradokizunik ez balego, Ordenantza behin betiko onartutzat emango da, akordio berririk egiteko beharrik gabe**.

Eztabaida

Alkate jaunak eztabaidarako txanda zabaldu duenean, jarraian jasotako ekarpenak egin dituzte:

Alkate jaunak adierazi du diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko dirulaguntzen ordenantzaren aldaketa bat dela, eta Gizarte zerbitzu eta Osasun Sailak proposatzen duen aldaketaren berri eman du.

**1.- Aprobar inicialmente la modificación del anexo I de las Bases reguladoras de las ayudas municipales de garantía de ingresos y para la inclusion social, en los siguientes términos.**

**Anexo I :** Añadir en “Criterios de Concesión” de los apartados 2.d, 2.e y 2.f el siguiente criterio:

“ – No ser beneficiario de la Prestación Complementaria de Vivienda (PCV), salvo en los casos propuestos por la trabajadora social”

**2.- Someter dicha modificación a exposición pública en el Tablón de Anuncios del Ayuntamiento y Boletín Oficial de Gipuzkoa por plazo de 30 días, dando audiencia a los interesados para la presentación de reclamaciones, alegaciones y sugerencias que serán resueltas por la Corporación.**

**3.-En el supuesto de que no se presentaren reclamaciones, alegaciones o sugerencias se entenderá la ordenanza definitivamente aprobada sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.**

Debate

Abierto el turno de intervenciones por parte del Sr. Alcalde se producen las que sucintamente a continuación se recogen:

Sr. Alcalde señala que se trata de una modificación de la ordenanza de subvenciones para la garantía de ingresos e inclusión social e informa de la modificación que se propone por parte del departamento de Servicios Sociales y Salud.

**Bozketa:**

Bozketa egin eta gero, ondorengo emaitzak izan dira:

**Aldekoak**: 16 (EUSKAL HERRIA BILDU (E.H. Bildu) 7, EAJ/PNV 6, ELKARREKIN PODEMOS ORDIZIA ORAIN (Podemos, Ezker Anitza/IU, EQUO Berdeak) 2, (PSOE) PSE-EE (PSOE) 1)
**Aurkakoak**: 0
**Abstentzioak**: 0

**Beraz Alkate jaunak proposamena aho batez onartutzat jo du.**

Jarraian, Alkate jaunak gai-zerrendaren hurrengo puntuaren berri eman du:

**9.- Galde-erreguak**

- Santamaria jaunak esan du gaur goizean Tokiko Gobernu Batzordean obren idazketaren, obren zuzendaritza kontratuaren eta Majoriko obren exekuzio kontratuaren aldaketen gaia atera dela.

**9.- Ruegos y preguntas.**

- Sr. Santamaría dice que esta mañana en la Junta de gobierno Local ha salido el tema de las modificaciones del contrato de redacción y dirección de obras y del contrato de ejecución de las obras de Majori. Solicita

Igerilekua egokitzeko proiektuari buruzko informazioa ere eskatu du.

Kontratu horiek nola dauden galdetu du.

- Alkate jaunak erantzun dio esanez gaur bertan ASMATUk kontratuaren aldaketa justifikatzeko dokumentu bat bidali duela eta orain aldaketa horietarako behar den finantzaketa onartzea baino ez dela falta, eta 2019ko aurrekontuan partida bat dagoenez eta kreditua aldez aurretik sartzea onartu arte ezingo dela aldaketa-espedientea martxan jarri. Inkorporazio hori ezingo balitz egin, ezingo da finantzaketarik lortu 2019ko ekitaldiko likidazioa itxi arte.

Bigarren gaiari dagokionez (igerilekuen proiektua), erantzun du esanez 2018ko aurrekontuan aurreikusitako partida ez zela 2019ko aurrekontu luzatuan sartu, eta horregatik ez dela kontratua sinatu, eta horrekin batera aurkeztutako proposamena eta kirol-azpiegituren mahaian adostutako aurreproiektuak funtsean desberdinak direlako. Horregatik, bilera bat egin behar da aurkeztutako proposamena mahai horretan adostutako aurreproiektura egokitzeko.

también información sobre el proyecto de adecuación de la piscina.

Pregunta cómo están dichos contratos.

Sr. Alcalde le responde respecto a la primera cuestión que hoy mismo ASMATU ha remitido un documento para justificar la modificación del contrato y que ahora sólo falta aprobar la financiación necesaria para dichas modificaciones y que dado que hay partida en el presupuesto de 2019 y que hasta que se apruebe la incorporación anticipada de crédito no podrá ponerse en marcha el expediente de modificación. Si dicha incorporación no fuera posible no se podrá disponer de financiación hasta cerrar la liquidación del ejercicio de 2019.

Respecto a la segunda cuestión, proyecto de piscinas, responde que la partida prevista en el presupuesto de 2018 no se incorporó al presupuesto prorrogado de 2019 y que por eso no se ha firmado el contrato y también porque la propuesta presentada difiere sustancialmente con el anteproyecto acordado en la mesa de infraestructuras deportivas. Por ello, se hace precisa una reunión para adaptar la propuesta presentada al anteproyecto acordado en dicha mesa.

Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta hau jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

ALKATEAK / EL ALCALDE

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde levanta la sesión, de la que se extiende la presente, de todo lo cual, yo el Secretario, certifico.

BEHIN BEHINEKO IDAZKARIAK
LA SECRETARIA ACCIDENTAL

Ordiziako herri noble eta leialeko alkatetza

**ANA ISABEL URQUIZU QUEREJETA**
**Data / Fecha: 16/03/2020**

**ADUR EZENARRO AGIRRE - 44142431A**
**Data / Fecha: 2020/3/16**



Kale Nagusia, 24 - 20240 ORDIZIA - Telf. 943 88 58 50 - arretabulegoa@ordizia.eus www.ordizia.eus